

Hamabost urte bete ditu Necocheako euskal etxearen Hator Hona egitasmoak. Euskal Herriko gazteak Argentinara gonbidatzen dituzte, euskal kulturari buruzko ikastaroak egiteko. Aurtengoa berezia da: aurretik joandakoak gonbidatu dituzte.

# Mundu berria bestaldean



**EUSKARAZ.** Euskara eskolak 2004. urtean. H.H.



**TXOKOAN.** Trikiti doinuak 2005eko Hator Honan. H.H.

**Iker Tubia**

**N**ecochea ez da Euskal Herrian, nahiz eta hara doanak ikusiko duen badela Euskal Herriko Necochean. Euskal etxe handi bat bada bertan, Euskal Herri txiki bat, Argentinan. Udan –han negua–, euskal gazteak gonbidatzen dituzte haienera, euskal kulturari buruzko tailerak eman ditzaten. Dagoeneko hamabost urte pasatu dira Hator Hona izeneko egitasmoa abiatu zutenetik, eta, urtemuga ospatzeko, aurtengoa berezia izanen da: aurretik egondakoak gonbidatu dituzte berriz etxera.

Antolatzaileek zein parte hartzaileek, argentinarrak zein eus-

kal herritarrek, denek argi dute Hator Hona berezia dela. «Aitzakia bat zen, baina aitzakia perfektu bat». Hala deskribatu du Olatz Elejabarrietak. 2006. urtean izan zen Necochean. «Konexio bat dago, sekulakoa, eta, gainera, urtero pasatzen da». Zortzi urte geroago joan zen Eñaut Arretxe: «Necocheako gazte zoragarri batzuek martxan jarritako proiektua da, niri pertsonalki diaspora ezagutzeko aukera eman didana, eta munduaren beste puntan beste mundu bat ireki didana».

Dagoeneko euskal etxeko «motorra» da Hator Hona, Maite Bilbaok dioenez. Bilbao necocheatarra da, eta lehenbiziko edizio horretako antolatzaileetako bat. EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkari batek deituta bilera bat egin zuten. EGK-koak

Argentinan ziren, bertako gazteei proiekturen batean laguntzeko gogoz. Aurretik eginak zituzten beste batzuk. «Handik egun batzuetara sortu zen ideia truke bat egiteko, gure euskal etxeari eta batez ere gure belaunaldiari indarra emateko». Borobil atera zen. «Lehenengo hartan bihotza utzi genuen: bihotza ireki eta mahai gainean jarri genuen». Lagun handiak egin zituzten, eta Euskal Herria aho gazteagoetatik ulertu. «Gure arbasoek kontatutako ipuin bat izatetik, kontaktu bizi, zuzen eta lagun sorta izatera pasatu zen. Familia bat».

Lotura bat da Hator Hona, Euskal Herria eta Argentina ez ezik Argentinako eta Euskal Herriko euskaldunak ere lotzen dituen. Eta lotura estua, hangoak eta hemengoak aldatzerainokoa. «Hator Honak jarrera aldaketa eragin zuen euskal etxean: gaur egun, noiznahi etortzen diren euskaldunak hartzeko jarrera ona dago», azaldu du Juanxi Yacomini. Lehenbiziko urtean nerabe zen Yacomini, baina 2009tik au-



**KALEJIRAN.** Trikitilariak, lehenbiziko aldian. H.H.



**TTAKUN.** Txalaparta eskolak 2006an. H.H.